

B

BARREN

**“Fitnessa nire
bizitza da,
ez daukat
besterik”**

**Daniel Arenas,
Finesseko lehiakidea**

ETXEBIZITZAK ERAIKITZEN SANTA KLARA 13 zkia. (Elgoibar)

BERRIA!!

Etxebizitza obra bertatik ikusteko aukera paregabea



- Duplexa terrazarekin
- 2 eta 3 logelako etxebizitzak
- Garaje eta trastelekuak

INFORMAZIOA eta SALMENTA: Pedro Muguruza Etorbidea, 9 - Behea (Elgoibar).
Tif.: 615 758 480

TRATAMENDUAK:

- ✓ Hanken afekzioen tratamendua.
- ✓ Neurrira egindako plantilak.
- ✓ Hanka diabetikoen zainketa.
- ✓ Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.

ORDUTEGIA:

09:30 - 13:30 / 15:30 - 19:30

Tif.: 943 74 16 45

San Frantzisko kalea, 20 behea



PODOLOGIA

Diplomaduna: INIGO ARRILLAGA YUDEGO

*Behar duenarentzat
etxez-etxeko zerbitzua*

Euskara salbatu ala gozatu?

“Lasai, euskara salbatuta dago...” izenburua zuen duela hilabete batzuk Deñek, zutabe honetan bertan, idatzitako artikulua. Ados nago Deñerekin. Hor ditugu, besteak beste, komunikabideak, kultur eskaintza, hiztegiak... Egoera hobea izan zitekeela? Ados, baina euskara salbatzen jardun beharrik ez dugu, dagoeneko salbatuta dago!

Nire ustez urte gehiegi daramatzagu euskara salbatzeagatik, militantziagatik, Euskal Herriarengatik... euskaraz hitz egin behar dela pentsatzen, esaten eta eskatzen. Zenbat lan! Iruditzen zait garrantzitsuena ahaztu zaigula: euskaraz bizitzen gozatzea.

Inoiz gertatu izan zait, lagunarteko bazkariren batean, euskara gutxi erabiltzen dela aipatzea eta euskaldunen bat eroso ez dagoela ikustea. Euskaraz hitz egiteko ohi-turirik ez duen euskaldunak uste du bere portaerak (edo traizioak) kalte egiten diola euskarari; hala pentsatzen eta esaten du gure lagunak ere. Aitortu behar dut lehen amorratu egiten nintzela lagun euskaldunen bat erdaraz hitz egiten entzutean. Orain ez. Orain pena ematen dit, baina lagunak ematen dit pena, ez euskarak.

Pena ematen dit, bai, ez dakielako gure lagunak euskaraz bizitzen sentitzen den plazera aprobetxatzen. Behin eta berriro esaten diot zein gustuko dudan batuan nahiz *euskalkixan* hitz egitea. Artikulu hau idazten, hitzekin jolas-

ten, benetan gozatzen dudala sinistuko balit gutxienez!

Gainera, badut nik euskaraz bizitzeko beste arrazoi bat ere. Gaur egun munduan zehar ibiltzeko ingelesa behar-beharrezkoa dela entzuten dugu etengabe. Ez dut nik kontrakorik esango. Egia da bai, munduan zehar ibili eta komunikatzeko ingelesez jakitea komeni zaigula. Baina bizitzan nora joan eta zer nahi duan jakiteko, buruak eta bihotzak diotena entzuteko, eta munduan zehar galduta ez ibiltzeko euskara da nik behintzat egunero-egunero behar dudana.

Haritz Goikoetxea




“Nire txanda” atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaituz gurekin harremanetan: 943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

.....

**“Iruditzen zait garrantzitsuena ahaztu zaigula:
euskaraz bizitzen gozatzea”**

**ELGOIBARKO MENDI ITZULIKO ERRETRATUAK
MEDIATEKAN JARRIKO DITUGU ASTELEHENEAN!**



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net



DANIEL ARENAS

FITNESS LEHIAKIDEA

“Gimnasioen eta txapelketen munduan zoriontsua naiz”

Diziplina eta dieta zorrotza dira Daniel Arenasen sekretu bakarrak azken urtean lortutako emaitzak azaltzeko. Kirola betidanik egin badu ere, 31 urte zituela hasi zen fitness munduan lehiatzen. Bilbon egin zen Euskadi, Nafarroa eta Kantabriako Kulturismo Txapelketan parte hartu eta hasiberrien mailan irabazi zuen, eta absolutuetan bigarren sailkatu zen. Hurrengo hitzordua ekainaren 1ean izango du Donostiako Victoria Eugenia Antzokian. Bertan Euskadiko Fitness Txapelketa jokatu da. Bilbon bizi da, eta bi gimnasio ditu: bata Barakaldon eta bestea Galda-kaon. Bere gorputzaren mugak ezagutu nahi ditu.

Altura eta pisua?

1,71 metro eta 69 kilo. Txapelketa denboralditik kanpo, dietaren arabera, nire pisua 75-76 kilo izan ohi da.

Txapelketak, gimnasioak... Mundu horretarako bizi zara?

Bai. Nire mundua da, nire bizitza, ez daukat besterik, baina zoriontsua naiz.



Argazkia: Erwan Grey




Daniel Arenas, katalogo baterako posatzen, Valentzian.

Nola hasi zinen?

Valentziako lagun baten bidez. Preparatzaile nazionala da. Deitu eta lagunduko zidala esan zidan. Hilabete behin Valentziara joatean nintzen, dieta gainbegiratzeko. Fitnessaren 75% inguru dieta da. Gogor entrenatu, zaindu eta ondo jan behar da.

Suplementoak eta anabolizatzaileak bereiztu behar dira...

Bai, lehengo batean proteina zuen batido bat hartzen ari nintzen, eta adineko emakume batek esan zidan: “Hara, anabolizatzaileak hartzen”. Jendeak nahastu egiten du. Droga hor dago, kalean, nahi duenak har lezake.



Gimnasioetan ere bai?

Leku guztietan, futboleant, tenisean... Ez kirol honetan bereziki. Kulturista naturalak daude.

Anabolizatzaileak hartzeari, ziklatzea deitzen zaio, inolako errespeturik gabe...

Dakienak ez du arin hitz egiten, eta badaki anabolizatzaileak hartzeak zer eragiten duen. Jendeak, oro har, ez du sakrifikatu nahi. Nork pasatzen du ondo, gaur egun, zapatu gaue-tan edan gabe? Inork ere ez.

Zuk 31 urte dituzu. Ez zara berandu hasi?

Ez. Ez nintzen lehenago hasi ez nengoelako prestatuta. Mendi maratoietan, ehizan... parte hartutakoa naiz. Bizitza guztian zehar egon naiz lehiatzen. Baina negoziokekin nobilela, zaila zen lehiatzen hastea. Denbora libre gutxi nuen. Denbora libre eta sakrifizioa behar dira. Jendea ez da horretaz konturatzten. Norbait gihartsua eta osasuntsua ikus-tean, ziklatu egiten dela esaten du jende ez-jakin askok. Ni, berriz, urtebete egon naiz monje bizitza egiten.

Merezi du?

Nire kasuan bai. Merezi du bizikleta hartu eta Quebrantahuesosa egitea? Eta zapatu gaue-an irten eta domeka goizera arte parrandan egotea? Nik ez dut inor epaitzen eta ez dut inork ni epaitzerik nahi.

Elgoibarren gimnasioren bat irekiko zenuke?

Sasoi hartan aztertu genuen, baina ezin izan zen, baina ideia hori ez dut baztertzen.

Zure hirugarren gimnasioa litzateke...

Beharbada Elgoibarrera joaten naizenerako, ez dut gimnasio bakar bat ere. Nork daki.

Lanean etengabe zabilta?

Goizeko 8:00etatik gaueko 12:00etara lan egiten dut. Nire janariarekin leku guztietara joaten naiz: zinera, hondartzara...

Garestia da bizimodu hori?

Garestia da parranda egitea? Batean aurrez-ten dudana bestean gastatzen dut. Ez daukat beste gasturik. Babesten nauten markak ere baditut, eta katalogo bazuetarako mode-

lo izan naiz. Esperientzia berria da niretzat.

Nola lortzen da hori?

Marka onak lortuz, eta serio ari zarela frogatu. *Cantamañanas* asko daude.

Hondartzan giharrak erakusteko...

Hori txapelketetan ere ikus daiteke; ez dira beti lehiaketan ateratzeko moduko gorpuzak egoten, edo ni egon naizen bezala, azken hilabeteetan dieta zorrotzarekin. Niretzako dieta egitea normala da.

Ekaineko txapelketa eta gero zer egiteko as-

“Beti tapatuta joaten naiz, eta ez ditut besoak agerian lagatzen. Lotsatia naiz”

moa duzu?

Ikusiko dugu. Nazionalerako sailkatzen baina, nazionalera joango naiz, eta bestela datorren denboraldia planifikatuko dut. Lau kilo gihar irabaztea gustatuko litzaidake. Abuztuan hasiko nintzateke pisua irabazten, datorren urtera begira Espainiako txapelketan parte hartu ahal izateko.

Orduan ekainetik aurrera, zure eritmoa apaldu liteke, ezta?

Bai, baina horrek ez du esan nahi alfertu egingo naizenik.

Lagun gehiago badituzu mundu honetan?

Ezagunak. Pasa den urtean gazte bat pres-tatu genuen, eta gero ni animatu nintzen.

Gero eta kompetentzia gehiago dago fitness

munduan?

Bai, gero eta jende gehiago dago, baina jende asko ez da konstantea. Askok urtebete egin eta laga egiten dute. 30 urterekin monje bizitza egitea oso gogorra da.

Kirolik exijenteena da?

Bai. Bizitza guztia daramat kirola egiten eta niretzako kirolik exijenteena da.

Mito asko daude, indarrak ez duzuela adibidez...

Ez da egia. Indarra eduki behar dugu pisu gehiago altxatzeko.

Zure gorputza zu aurkezteko modurik onena da?

Ez, ezagutu nahi nuenak ezagutu nazala. Gainera beti tapatuta joaten naiz. Lagun baten beti esaten dit zergatik ez dudan besoa agerian lagatzen. Entrenatzen dudanean batzuetan agerian lagatzen ditut besoa edo hankak, baina jende gutxi dagoenean. Pertsona lotsatia eta xumea naiz.

Eta taula gainean zaudenean publikoaren aurrean?

Fokoen bitartez ia ez da jendea ikusi ere egiten. Nigatik egiten dut, lortu dezakedan garapena ikusteko.

Zure familiaren laguntza jaso duzu?

Bai, ez ziren harritu honetan hasi nintzenez. Berezkoa dut lehiatzea. “Hara, beste erronka bat”, esan zuten. Hasieran, familiako nagusi-entek ez zuten ulertzen dieten kontua eta, are eta gutxiago etxera taperrekin joaten nintzenez.

Bitzeko modu berezia da...

Bai, eta astebukaeretan entrenatu behar baina, entrenatzen naiz. Pasa den txapelketan esan zidatenean, hanka lehor eta definituenak nituela, jabetu nintzen ondo ari nintzela. Hori dietaren eta entrenamendu gogorrekin lortzen da.

ZER IKASI BADAGO



Ezkerretik eskumara, Leire Alberdi mendararra, Ana Garro eibartarra eta Olatz Arriola elgoibartarra.

Zerikasi Debabarreneko ikastaroen berri ematen duen gunea da. Bitartekaritza zerbitzu horretan, Leire Alberdik, Ana Garrok eta Olatz Arriolak egiten dute lan. www.zerikasi.com webgunea martxan jarri dute ikasten jarraitzeko interesa dutenentzako. BARREneko agendak, barixaku honetatik aurrera, Zerikasiren berri emango du.

Andoni Iturbe

Bizitza bera bada ikastarorik mardulena, ikaskuntzak ere ez luke etenik izan behar. Helburu horrekin jaio zen Zerikasi etengabeko ikaskuntzarako bitartekaritza zerbitzua. Euskal Autonomia Erkidegoko eskualdeetan hedatzen ari den programa Debabarrenean ere egituratu dute Leire Alberdik, Olatz Arriolak eta Ana Garrok. Azaroan hasi ziren pres-

tatzen Eusko Jaurlaritzak diruz lagundu duen proiektua. Helburua gizarteratzeko arazoak dituzten 25 urtetik aurrerako lagunei (langebetei, emakumezkoiei...) aukera ematea da ikastaro zerbitzuen bidez. Horretarako Udalekin, gizarte zerbitzuekin, ikastetxe eta trebakuntza zentroekin harremanetan jarri ziren. "Momentuz, 90 elkarte inguru bisitatu ditugu eta beraien bitartez jasotako 320 ikastaro in-

guru sartu ditugu www.zerikasi.com webgunean. Harrigarria da zenbat ikastaro egiten diren", adierazi dute. Hainbat talderekin hitz egin zuten, hala nola emakume taldeekin, jubilatuekin...

Ikastaro motak

Ikastaroen bidez ez dira tituluak bakarrik lortzen. Ikaskuntza bitartekaritza zerbitzua

ohiko ikastetxeek (musika eta hizkuntza eskolak, akademiak, ikasketa zentroak...) eskaintzen dutenez gain, norberaren garapenerako lagungarriak diren ikastaroak ere bildu ditu: kirola, musika, emakume eta etorkinentzakoak, erreminta-makinaren sektorea, informatika, merkataritza, osasuna, sukaldaritza, eskulanak... Debabarrenean jardungo du proiektuak. Ildo horretan, kontuan hartu dute bakoitzaren lan-eremua jaioterriaren arabera: Leirek Mendaro eta kostaldea; Olatzek Elgoibar eta Anak, Plaentzia eta Eibar.

Internet

Zerikasi.com webgunean argibide gehiago badaude ere, beti ez da eraginkorra izaten. "Internet oso tresna erabilgarria da, baina konturatu gara ez garela gizarte sektore guztietara heltzen, adineko emakume edo etorkin guztiek ez dutelako internetik erabiltzen", diote. Horregatik, komunikabideen bidez euren proiektuaren berri eman

nahi dute. Gainera elkarteetan liburuxkak laga dituzte euskaraz eta gaztelaniaz. Poliki-poliki kartelak ere jarriko dituzte.

Ikastaroak egiteko laguntzak

Informazioa bildu eta ezagutarazteaz gain, saiaturako dira aholkatzen eta laguntzen. Esate baterako, elkarte edo lagun talde batek ikastaro bat eman nahi badu eta ez badaki non. Horretarako, badute eskarmentua: Ana Garro psikologoa da eta IMHn giza baliabideetarako eta garapen pertsonalerako proiektuak egin ditu. Leire Alberdik IMHko harrera-lekuan egiten du lan, eta Olatzek ere sentsibilizazio kanpainetan jardun du.

Proiektua IMHn jaiotzen bada ere, "neutroak" direla argitzen dute. "Jendearengana iristen saiatu behar dugu, zenbat eta ikastaroen informazio gehiago eduki, orduan eta zerbitzu hobea emango dugu", azaldu dute proiektu horretan duten ilusioa galdu gabe.



“Internet bidez ez gara adineko emakume edo etorkinengana heltzen”

ELGOIBAR

Olatz Arriolak jasoko ditu herriko ikastaroen eskaintzak. "Elgoibarren musika eta kirola dira jaun eta jabe. Erreminta-makinarekin zerikusia duten ikastaro asko ere badaude", azaldu du. Herriko elkarteei eta ikasten jarraitzeko interesa duten herritarrei deia egin nahi die, ziur baitago ikaskuntzak gizarteratzeko aukera berdintasuna eta aniztasuna garatzen duela.

Proposamen guztiak aztertuko dituzte, herritarren zerbitzura ikastaroak jartzeko. "Gainera herrian bertan kultur elkarte garrantzitsuak, Elgoibarko Izarra bera, edo ikastetxe boteretsuak daude: *Meka*, IMH...", gaineratu du Olatzek. Interesa duenak Zerikasirekin hiru modutan lagundu dezake: datu basea ikas-

kuntza eskaintzarekin eguneratuz, jardueri buruzko informazio-liburuxkak bidaliz eta bizitza osoan zeharretako ikaskuntzarako bitartekaritza zerbitzua ezagutaraziz. Hala nola, Zerikasi zerbitzuaren bitartez, ikaskuntza eskaintzaren hedapena ere areagotu nahi dute, erabiltzaileen beharrak kontuan hartuta.

Nora jo

Interneteko webguneaz (www.zerikasi.com) gain, herritarrek telefono bidez ere jaso ditzateke azalpen gehiago 943 74 82 71 zenbakira deituz. Leire Alberdik jasoko ditu deiak eta berak bideratuko ditu.

Ordutegia astelehenetik barixakura izango da, goizeko 9:00etatik 13:00etara, eta arratsaldeko 14:30etik 17:30era. IMHn (Azkuera auzoa,1) dute egoitza.

HIRU.COM

Bitartekaritza zerbitzua ez dago oraindik Euskal Autonomia Erkidegoko eskualde guztietan, baina Jaurralitzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak sare osoa bi urte baino lehen osatzeko asmoa du. Orain dela urtebete inguru sortu ziren eskualdeetako lehen egitasmoak. Harreman estua dute Debabarreneko Zerikasiko kideek gainontzekoekin [hiru.com](http://www.hiru.com) webgunearen bidez. Beste eskualdeetako bitartekari zerbitzuen informazioa lotura honen bidez lortu daiteke: <http://www.hiru.com/ikasgida/bitartekoa>. Bilboko Ezkerrealdean ia 1.600 ikastaro eskegi dituzte.

Bien bitartean, astero eguneratzen dituzte ikastaroak Zerikasin, eta albisteak ia egunero. "Webgunea martxan jarri genuenetik, 120 albiste sartu ditugu. Ikaskuntzarekin lotura duten loturak ere topatu dezakete ikasten jarraitzeko asmoa dutenek", diote.



BARREnek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak**, **NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Urkieta etxea

Hamar urte inguru daramatzat Elgoibartik kanpo bizi izaten. Natorren bakoi-tzean zurezko estrukturadun mendebete-ko etxeak nola botatzen dituzten eta ho-rien orde zementuzko etxe berriak nola eraikitzen dituzten ikusten dut.

Azkenekoz Aste Santuan izan nintzen herrian, eta Plaza Handiko Urkieta etxea (Etxeberria farmazia) botako zutenaren berri izan nuen nire ezusterako.

Geroztik buruan izan dut gaia, baina gaur, hilak hemeretzi, amak noizbehinka Elgoibartik bidaltzen didan kaxan, bertako jakien artean, BARREN ikustean, gustatu-ko ez zaidan zerbait topatuko dudala pen-tsatu dut. Hala izan da, hamalagarren orrialdean hilabete amaieran eraikina bo-tako dutenaren berri izan dut.

Barnean amorrua sentitu dut eta El-goibarko herriari, eta batez ere Udalari, ni-re desadostasuna azaltzea pentsatu dut. Ezin dut ulertu Elgoibarrentzat eta Euskal Herriarentzat balore arkitektoniko-histori-koa duten eraikinak halabeharrez nola bo-tatzen diren, guretzat zein garrantzi duten pentsatu gabe.

Ina Garagartza, Pello Arrieta, Koldo Li-zarralde bezalako herritarrei esker izan du-gu gure historiaren berri, baina gaur egu-nera arte iritsi diren historia kutsu horiek eraitsi beharrean, hauek mantentzeko ahaleginak egin beharko genituzkeela us-te dut, zimentuzko eraikinen artean goxo-tasuna zabalduz.

Herriari bilakaera ezin zaio ukatu, bai-na gure izaeraren berri ematen diguten elementuak mantentzea beharrezkoa

ikusten dut. Udalak interes historiko-arki-tektonikoa duten eraikin publiko zein pri-batuak kontserbatzeko lana egin beharko luke, horiei laguntzak eskainiz.

Ikusi besterik ez daukagu antzinako merkatu plazaren eta gaur egungoaren itxura. Eraikin bat bota beharrez gero, etxaurrea edo egituraren parte garrantzi-tsu bat mantendu daiteke barnea guztiz berrituz, eta, nahi izanez gero, solairu gehiago eraikiz.

Hamargarren orrialdean, Begoña Gu-rrutxagak ea garrantziarik ematen zaion hi-rigintza alorrean estetikari galdetzen diote-nean, "zer esango dizut, King-Kongen bi-zi naiz eta!" erantzuten duenean, nire us-tetan eman dezakeen erantzunik onena eman du. Eskerrak ematen dizkiet beste hainbat gauzen artean, Altzola Dorretxea (Kultur Etxea) eta Usuan dagoen Muguru-zatarren etxeko arku berreskuratu dituz-ten alkateei; eta gaurko eta etorriko diren eraikin historiko hauek kontuan izatea, gu-re seme-alabek gure arbasoek eraikitakoa ezagutu dezaten.

Beharbada berandu da Urkieta etxearentzat, baina espero dut etorkizu-neran oraindik tente dagoen San Bartolo-me kaleko hamabigarren zenbakiko etxe-ak, adibide bat jartzearren, berdin jarrai-tzea.

Alazne Gonzalez Astigarraga ☺

Elgoibarko herria

Eskerrik asko, eskerrik asko, herri ho-ni laguntzeko behar dugun laguntza ema-tegatik.

Elgoibarko Gurutze Gorria sortu zene-tik, beti hor egon gara herriak gure beha-rra zuenean, une gogorretan, xamurretan, lasaietan eta ez hain lasaietan, baina beti kalean, herritarrei laguntzen. Bai pertsona bat jausi izan denean edota auto istripu bat izan denean, sokamuturretan eta inauterietan, jubilatuen bazkarian eta ume-en egunean, eguneko zentroko erabiltzai-leak eramaten eta behar zuen agurea etxetik jaisten.

Baina gaur gu gara Elgoibarko herri-ri eskean gatozkionak. Proiektu guzti ho-riek eta buruan ditugun beste horrenbeste gauzatu ahal izateko, dirua behar dugu, ez guk gure poltsikoak betetzeko, baizik eta herriari laguntzeko, zuei laguntza eman ahal izateko, eta diru hori lortzeko modu oso egokia eta zuzena, urtero, Gu-rutze Gorriak antolatzen duen Urrearen Loteria erostea da.

Loteria hau erosita guri izugarritzko la-guntza emateaz gainera, erosten duenari 24 kilatedun 130 kilo urre irabazteko au-kera ematen zaio. Jakin badakigu herri honek behar izan dugunean ondo lagun-du digula eta ziur gaude oraingoan ere on-do erantzungo digula, beti egin izan duen bezala.

Loteria erostea oso erraza da. Herriko hainbat denda, taberna eta egoitzatan da-go zintzilikatua eta bertara hurbildu eta erostea baino ez da egin behar, edota Gu-rutze Gorriko egoitzara hurbilduz gero eros daiteke. Mila esker herriari laguntzea den amets hau gauzatzea laguntzen du-zuen guztioi.


Elgoibarko Gurutze Gorria ☺

Barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
 ☎ 943 74 41 12
 Faxa: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
 Publizitatea: ☎ 943 74 37 04
 E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Noemi Otegi

Sasi guztien gainetik, eta laino guztien azpitik, ibiltzen ziren Zugarramurdi eta Euskadiko

sorginak. Gogoko ditut betidanik sorginak, emakumearen eskubideen aldeko lehen aldarrikatzaileak, izakera propioaren lehen ikurrak, eta ondoren hainbesteko ospe txar eduki zuten emakumeak, infarnuetako ordezkari izatearren sutara eramán zituztenak, eta egun gogoratu nahi ditudanak. Natura ezagutzen zuten eta natura erabiltzen, eta hori momentu horretako zuzenbidetik ateratzen zenez ez zeuden ondo ikusiak. Zein ondo irudikatzen duten sorginek benetako askatasunaren aldarrikapena, besteak errespetatzen dituen askatasuna, bere bidetik, inori kalterik egiteke, ze arraió!! Hainbeste ez idatzizko normen, hainbesteko ohitura on eta txarren definitzaileen gainetik aritzen ziren gure sorginak.

“Zer burutzapen datorkizu zuri, Ainara, sorginei buruz galdetzen badizut?”

Oroitzen Zugarramurdi egon ginen egun hartaz? Joaten naizen guztietan gertatzen zait berdina, ixilik geratzen naiz, pentsakor, amestez asetzen eta gogo berriz itozten. Maite ditut sorginak, nahi ditut gogoan izan: nola ahaztu izan zirena!! Sorgin horiei zenbat galdera egingo nizkieke, zenbat ikasiko nuen. Euren gorputzak erre zituzten, baina euren nahiak ez. Zer burutzapen datorkizu zuri, Ainara, sorginei buruz galdetzen badizut??? Konturatu nintzen zu ere liluratuturik barnerratu zinela nirekin kobazulo haietan. Zenbat gauza pentsatzeko, zenbat aldaketa burutzeko, zenbat ate gelditzen zaizkigu oraindik irekitzeko... esan bezela, gogoko ditut, eta gogoan ditut Zugarramurdiko sorginak.



Ainara Sedano

Anboto! Hori da burura datorkidan lehen pentsamendua sorginez aritzean. Mendiaren punta lainotuta dagoenean Mari etxean dagoela dio kondairak, bere kobazuloan, bere lurraldea eta jendeak zelatan. Edo auskalo! Agian apo orlegi eta ziraun hezeak asunekin nahas-mahasean, lur gainetik eta lainoen azpitik hegaz egin araziko dioten ukenduak prestatzen ibiliko da, edo akera adar okerraren inguruan akelarrean dantzan, edo konjuru madarikatuak gertatzen. Esaten da, baita ere, Euskal Herriko eurite eta ekaitz ikaragarriak Mari bere bikotearekin maitasunean ari denean sortzen direla... eta horien semeek deabruarekin ikasitakoak direla Zugarramurdiko kobazuloan.

Ba al dakizu, Noe, zer izan diedan nik beti sorginei inbiditan? Hegaz egiteko erratza.

“Utzi diezadala Anbotoko Damak hegaz egiteko erratz bat”

Hurrengo gabonetan, Olentzero eta Mari Domingin gera daitezela sutondoan epel. Eta Anboto lainotuta badago, eta Mari etxean edo inguruetan badabil behintzat, pasa dadila bera nire etxetik: leihoa zabalik lagako diot apropos. Horixe eskatuko dut nire eskutitzean.

Eta utzi dezala Anbotoko Damak nire gabonetako zuhaitzaren pean hegaz egiteko erratz bat. Zintzo portatzen bazara, Noe, eskatuko dizut zuri ere bat.

Eta Elgoibarren kafea hartzera erratzaren gainean aterako gara... sorgiña piruliñak...



Elgoibarko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Ikus-min handia sortu du Rodolfo Chikilicutreren ezusteko agerraldiak.

Ikusiko duzu aurtengo Eurovision jaialdia?



Leire Balada

11 urte, ikaslea

Ezin izango dut aurtan. Pasa den urtean ere pixka bat jarraitu nuen. Chikilicutre ondo dago, dibertigarria da, eta nahiko berezia. Abestiarren letra ez dakit buruz. Nahiko xelebrea da.



Maite Viñes

10 urte, ikaslea

Eurovision ikusteko ohitura dut, eta aurtengoa ere jarraitzeko asmoa nuen Chikilicutre irten ala ez. Ez dakit irabaziko duen, baina oso pertsonaia bitxia da, eta ikus-min handia piztu du.



Ana Maria Acebedo

27 urte, zerbitzaria

Ez dut ikusiko, lanean egongo naizelako. Gainera Chikilicutre ez zait batere gustatzen, eta abestia zatarra da. Beste herrialde batzuetako abestiak politak dira.



Miguel Fernandez

74 urte, jubilatua

Ez dakit, momentuan erabakiko dut. Chikilicutre ezustekoa izan da. Oilar bat ere ez da irten? Gure sasoiari, Eurovision hasi zenean, jende askok ikusten zuen, no-bedadea zelako.

10^{eko}
TXIKIAN



JULEN
AGIRRE

Ostalaria

1. Zer falta zaio herriari? Eta zer dago soberan?

Herriaren parte hartzea falta zaio, ez delako nahikoa. Eta soberan, gauza gutxi ditu.

2. Azken aldian egin diren obretatik, zein da gehien gustatu zaizuna?

Ez zait obra bakar bat ere gustatu.

3. Nolakoak dira elgoibartarrak?

Lotsatiak.

4. Herriko txokorik gustukuena?

Madala.

5. Aukera nahikoa badago Elgoibarren kirola egiteko?

Bai, baina nahiko kritikoa naiz kirol instalazioen egituraketarekin. Min-txeta eta kiroldegia bereiztuta egotea deserrosoa da bai herritarrentzat eta baita kirol antolakuntzarentzat ere.

6. Aukeratu egun bat, lagun bat gure herrira gonbidatzeko...

Gabon Zahar Feria.

7. Bainatuko gara inoiz Deba ibaian?

Ez dakit, baina gustatuko litzaidake arraunean egin ahal izatea Deba ibaian.

8. Ondo komunikatuta dago gure herria? Erabiltzen duzu garraio publikoa?

Garraio publikoa erabiltzen dut, baina aukera eta baliabide gehiago ematen zaizkio kotxe pribatuari garraio publikoari baino. Gainera uste dut herrian lurpeko aparkalekuak falta direla.

9. Ausartzen zara kultur eskaintzari tentsioa hartzen?

Bai. Jendearen erantzuna ez da egokiena kultur eskaintzari dagokionez. Gauza mordoa egiten dira; eta horietatik asko, interesgarriak. Zine-klubari ematen zaion harrera ere ez da egokia. Izan ere, hori ez da antolatzaileentzako bultzadarik aproposena.

10. Ipiniozu nota gure herriari, 0tik 10era bitartean...

7.



Umeen danborradan atera zuten zaldiak kaka egin zuen Plaza Handian, eta arratsaldean kaka piloak hantxe jarraitzen zuen: "Asteburua primeran zihoan, baina amaiera zikina izan zuten Trinitate jaiek. Umeen danborradako zaldiak kaka egin zuen Plaza Handian, eta udaltzainei abisua eman genien arren, inork ez zuen kaka piloa jaso. Arratsaldean erraldoi eta buruhandien kalejira zegoen, eta zezentxo berezi batzuk atera zituzten. Ume mordoa zegoen Plazan, kaka piloaren inguruan korrika. Lotsagarria!".



Sanlo eskubaloi taldeak eskerrak eman nahi dizkie asteburuko kirol ikuskizunean parte hartu duten guztiei: "Ez dugu Espainiako Txapelketarako txartela eskuratu, baina eskerrik asko guztioi: Elgoibarko Udalari, Kirol Patronatoari, klubeko jokalariei, ikusle eta zaleei, Mausitxa txarangari, jokalarien gurasoei, IMHri, babesle izan diren enpresa guztiei, Gipuzkoako eta Euskadiko eskubaloi federazioei, eta kirol ikuskizun honetan laguntzaile izan ditugun pertsona guztiei. Mila esker egin duzuen ahaleginarengatik".



GEHIENEO BERMEA AKABERA ETA GARBIKETAN!

www.biokdekorazioa.com

Santa Klara, 26 behea ezkerre

Te.: 943 74 15 52 / 606 43 11 20

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe!



- Fatxadaren erreabilitazioa
- Apaintzeko pintura
- Paperak eta muralak
- Parket flotatzailea
- Pintura orokorrean

Gremioen zuzendaritza:



Jaurlaritzak tranbia zerbitzuaren gaian azaldu duen itxurakeria kritikatu du Elgoibarko Ezker Abertzaleak

Hala ere, Ermua eta Elgoibar arteko tranbia zerbitzua jartzea ideia ona dela esan dute

Datorren urteko udazkenetik aurrera, Ermua eta Elgoibar artean hamabost minutuko maiztasunarekin tranbia zerbitzua martxan jarriko dutela eta, Elgoibarko Ezker Abertzaleak gai horren gaian hausnarketa egin du. Batetik, garraio publikoari bultzada emateko ideia oso ona dela aipatu dute. Bestetik, Eusko Jaurlaritzak gai honetan erakutsi duen itxurakeria kritikatu nahi du. Euren hitzetan “PNVren Jaurlaritzako proiektu asko alderdikieretan erortzen dira, hau da, diru publikoa gastatzen dute itxurak egiteko, herritarren beharrak kontuan hartu gabe”. Ezker Abertzaleko kideen esanetan, herritarrek gero eta gehiago erabiliko duten garraio zerbitzu publikoa behar da, eta “Abiadura Handiko Trena inposatu nahi duen Nuria Lopez de Guereñu anderea, orain tren sozialak egiteko itxurakeriatan dabil”.

Tranbia berari buruz

Tranbia zerbitzuaren gaian, hiru azalpen egin dituzte:

1. Batetik, Altzola baztertuta gelditu dela esan dute: “Boteredunei ahaztu egin



bazaie ere, Altzola Elgoibarko auzoa da, eta bertako bizilagunek ere badute tranbia zerbitzua izateko eskubidea”.

2. Industriguneetara tranbiaz joateko joera bultzatu behar da: “Arriagan eta Karkizanon geltokia egin beharko litzateke, langileen ohiturak aldatzeko”.

3. Tranbia zerbitzua Mendaroraino (ospitalera joateko) luzatzea ondo etorriko litzatekeela azaldu dute, “goizeko orduetan batez ere”.

Zubibai bilera eskean

Bestalde, tranbia zerbitzuaren gaian inguruan prentsa oharra kaleratu du Altzolako Zubibai elkarteak. Auzotar talde horrek Iñigo Palomino Euskotren enpresako gerenteari bilera eskatu dio, trenak Altzolan ere geratu daitezzen. Elkarteko kideen arabera, otsailean Lopez de Guereñu Herri Lan sailburuari eskatu zioten hitzordua, eta oraindik zain daude.

Urte bukaeran hasiko dira Elgoibar eta Maltzaga arteko bide-gorriko lanak egiten



Diputatuen Kontseiluak Elgoibar eta Maltzaga arteko bidegorria berria eraikitzeke proiektua onartu du. 2,6 kilometro izango ditu eta aurreikusitako aurrekontua 1.768.616 eurokoa da. Hasieran 2007an ziren bidegorria eraikitze-koak, baina lanak atzeratu egin ziren eta 2008an egingo zituztela azaldu zuten Foru Aldundiko arduradunek. Azkenean, 2008. urte amaieran hasiko dira obrak. Lanak hasten direnetik, lau hilabeteko epean amaitzea aurreikusten dute.

Lekua **Apraizko depuradora**



Apraizko depuradoraren lanak atzeratu eta aurrekontua handitu izanaren arrazoiak ez daude euren esku, Carlos Ormazabal Foru Aldundiko Garapen Saileko diputatuak esandakoaren arabera. “Depurazio sistema berritzaile bat ezarri da, eta ondorioz kostuak handitu egin dira”. Bestetik, lanak hasita zeudela ezusteko hainbat arazo sortu zirela azaldu du, “eta horrek proiektua atzeratu egin du”. Gipuzkoako Batzar Nagusietako kide den Felix Asensiok (PSE-EE) azalpenak eskatu zituen, eta jaso ditu, baina ez dago konforme.

Berbia **Genero indarkeria**

Bikotekideari eraso egiteagatik 21 urteko gazte bat atxilotu zuen Ertzaintzak joan zen astean Elgoibarren. Udaltzain batek eta ertzain batek mutil gazteak emakumea lurrean nola eusten zuen eta txistua zelan botatzen zion ikusi zuten. Biktimak lepoan eta besoetan hematoma zituela ohartu ziren bertaratutako agentek. Etxeko korridorean eta gela batean kristal hondarrak zeuden, ustez etxean izandako liskarragatik, Ertzaintzako iturrien esanetan. Emakumea ambulatiora eraman zuten zauriak sendatzeko. Ustezko erasotzailea atxilotu egin zuten, eta Eibarko Epaitegiaren esku geratu zen barixakuan bertan.

Irudia **Kontzentrazioa**

Legutioko kuartelean ETAK egindako atentatua gaitzesteko kontzentrazioa egin zen maiatzaren 15ean. Bonba- autoaren ondorioz guardia zibil bat hil egin zen. 200 lagun inguru bildu ziren Elgoibarko kontzentrazioan, eta azken aldia egin den kontzentrazioarik jendetsuena izan zen. Ordu laurdeneko kontzentrazio isila izan zen.



Nagusientzako oporrak

Imsersoko nagusientzako oporraldien programan parte hartzeko epea zabalik dagoela jakinarazi du Udaleko Ongizate Sailek. Interesatuak Ongizate Sailean edo Jubilatuen Egoitzan jaso ditzakete eskaera orriak. Izena emateko azken eguna ekainaren 13a izango da.

Arantzazura erromesaldia

San Bartolome parrokiak antolatuta, Arantzazura egingo dute erromesaldia datorren domekan, maiatzak 25. Goizeko 9:30ean izango da irteera Txankakuako zubian, eta arratsaldeko 17:30ean izango da itzulera. Bidaiaren eta bazkariaren prezioa 30 eurokoa da. Interesatuak Muruamendiaraz gozotegian erosi ditzakete txartelak.

Milagrosa irteera

Jubilatuen Egoitzak Milagrosa (Nafarroa) irteera antolatu du ekainaren 18rako. Herria bisitatu eta hamaiketako egingo dute goizean, eta eguerdian bazkaria. Irteera goizeko 8:15ean izango da Plaza Handian. Interesatuak Jubilatuen Egoitzan eman dezakete izena.

Merkatu Plazako zozketa

Hilabete honetan Trini Urkizu eta Amaia Etxebarria izan dira Merkatu Plazako zozketan sari-tuak. 60 euroko txeke bana jaso dute, eta Merkatu Plazako dendetan gastatu beharko dute. Zorionak!



Gure berbak

Aditza (17): aditz batzuk

Aspaldixan aditz-laguntzaillien zerrendak ematen jardun dogu, saillez saill ematen aditzak (NOR, NOR-NORI, NOR-NORK eta NOR-NORI-NORK sailletakuak). Oraindik ez doguz amaittu aditz-laguntzailliak: subjuntibua, agintezrazkuak, ahalerazkuak eta aditz trinkuak falta jakuz. Hala ere, tarte bat egitteko asmua daukat ahazten ari jakuzen aditz batzueri lekua egitteko. Aditz batzuk gero eta gitxirago erabiltzen ditudugu, eta, poliki-poliki, gaizki erabiltzen hasi, eta handik denpora batera erabili ere ez ditudugu egitten. Adibidiekin hobeto moldatuko gara, nik uste:

- *Arboliari bultza egin dio sagarrak jausteko.*
- *Sagarra lurrera jausi da, eta kolpatu egin da.*
- *Sagarrari azala kendu nahi dio umiak, baiña ezin.*
- *Fubolian ziharduan, eta orkatillia okertu dau umiak.*
- *Haize asko dago gaur goizian.*

Ez dot esango gaizki daudenik hauek, baiña bai ondorengo hauek egokixaguak dirala, azkeneko esaldixa batik bat:

- *Arbolia **astindu** dau sagarrak jausteko.*
- *Sagarra lurrera jausi da, eta **maillatu** egin da.*
- *Sagarra **zuritu** nahi dau umiak, baiña ezin.*
- *Fubolian ziharduan, eta orkatillia **bihuritu** dau umiak.*
- *Haize **haundixa dabil** gaur goizian.*

Hurrenguan segittuko dogu holako adibide batzuk ematen.

Jesus Mari Makazaga

Erretratu zaharra

1973

Aste honetako erretratu zaharra Juanito Gorostizak ekarri digu. Herriko neska gazte koadrila bat ikusten dugu bertan. Jai giroan pasatu dugu asteburua, eta argazki hau ere jaietakoa da; San Bartolomeetakoa, hain zuzen ere. Plaza Txikian aterata dago erretratua. Neska guztiak kamiseta zuria jantzi, eta festarako prest azaltzen dira. Gogoratu dezagun zeintzuk diren beheko neskatxa gazte horiek:

Ezkerretik eskumara, goiko ilaran: Mari Jose Ostolaza, Goyi Avila, Arantza San Martin, Trini Carrasco eta M^a Asun Iriondo.

Behean: Ana Rosa Noguero, Ibone Iriondo eta Miren Argi Iriondo.



I. URTEURRENA



2007ko maiatzaren 26an hil zen, 55 urte zituela, **Josu Endika Iriondo** jaunaren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, larubatean, maiatzak 24, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokiari. Joango zaretenoi eskerrak alde zurretik.

BETI MAITASUNEZ, GOGORATUKO ZAITUGU



TRINITATEAK 2008

JAIK IRUDIZ IRUDI



Jai giroa izan zen nagusi Elgoibarko kaleetan joan zen asteburuan. Umorea eta alaitasuna eskutik emanda etorri ziren, eta asteburu osoan gurekin gelditu ziren. Barixaku gauean hasita, domeka arratsaldera arte ekitaldi pila bat izan ziren herrian. Adin guztietako jendeak gozatzeko moduko egitaraua izan dugu aurtengo Trinitate jaietan, baina amaitu dira. BARRENEko argazki kamera txokorik txoko ibili zen, eta hemen jaso ditugu jaietako erretratuak.

Argazki gehiago eta bideoak ikusteko: www.elgoibarren.net

TRINITATEAK ARGAZKITAN



Madalako gune askean ere ospatu dira Trinitateak, eta giro aparta izan zen.



Artisau azokan 27 postu jarri zituzten, eta horietatik bederatzik elgoibartarrak ziren. Argazkian Irati Agirreazaldegik ikusten dugu berak egindako bitxiekin.



Trikitalariek ere ikuskizun polita eskaini zuten zapatu goizean.



Akei baserriko asto dotoreak ere ferian izan ziren.



Lagun Arteak taldeak antolatuta, Mintxetari omenaldia egin zioten.



Ardoa izan da nagusien danborradako gaia, eta mahatsa zapaltzen aritu ziren bi lagun.




Gabonak urrun egon arren, Sabin Oregik jaiotza mordoia saldu zituen artisau azokan.




Generala eta emaztea ere izan ziren danborradan. 200 lagun inguruk parte hartu zuten guztira.




Bi ordu pasa iraun zituen nagusien danborradak. Kalerik kale jardun zuten.


 Popeye izan da umeen danborradako karrozako protagonista.




 Txakur eta antzarren erakustaldia egin zuen Iriarte baserriko Joseba Arrizabalagak.

 Elgoibarko base-
rietako animaliak
izan ziren protago-
nista ferian.




 Erraldoi eta buruhandien kalejirarekin amaitu ziren Trinitate jaiak. Sorpresa eta guzti atera ziren!




 Ardi txakurren erakustaldian jende mordo bildu zen, Iriarte baserriko Txatoren abileziak ikustera.




 Zezen berezi batzuekin irten ziren erraldoi eta buruhandiak.





 Punta puntako harrijasotzaileen erakustaldia izan zen Plaza Handian. Argazkian Goenatxo ikusten dugu, harri biribila lepoan hartuta.




 Sukaldari txiki mordoak irten ziren umeen danborradan.




 Euriaren ondorioz, Ikastolan egin zuten dantza jaialdia. Herritar mordoak gerturatu zen.

 12:00etan hasi zen nagusien danborrada. Jendez gainezka zegoen Plaza Handia.



 Eulali Moreno elgoibartarrak estreinakoz hartu du parte artisauren azokan. Argazkian, berak eginiko bitxiak ume bati erakusten.



 Inazio Bereziartua musika eskolakoek lan handia egin dute umeen danborrada antolatzen.



Antolatzaileak gustura geratu dira aurtengo jaiekin

Trinitate jaiak galtzear egon ziren garai batean, baina azken urteotan idar handia hartu dute. Jende askok hartzen du parte jaien antolakuntzan, eta herritarrak ere gustura joaten dira ekin-tzetara. Eguraldia ere ondo portatu da aurten, eta jendeak primeran erantzun du. Ondorioz, antolatzaileak gustura azaldu dira.

Udaleko Kultura Sailak antolatutako Ufaka Zanpaka ekitaldiarekin hasi ziren Trinitate jaiak. Blanca Salegi kultura teknikariaren ustez, “saioa ikusgarria izan zen eta bertaratutako jendea oso gustura irten zen”. Artisau azokak izan duen harrerarekin ere pozik azaldu da: “Aurten, karpa berriarekin, gauzak hobeto antolatu ditugu, eta postuak txukunago egon dira; eta erakusleek, eta jendeak ere, toki gehiago eduki dute. Jende ugari bildu zen feriaren inguruan, eta oso ederra izan zen”. Azkenik, erraldoi eta buruhandien kalejiran izandako *zezen-zikletak* sorpresa polita izan zirela aipatu du: “Arrakasta handia izan zuen erraldoi eta buruhandien kalejirak, beti bezala, eta haurrek bizi-ki ongi pasa zuten *zezen-zikletekin*”.

Udalak eta herriko kultur taldeek lan handia egin dute Trinitate jaien antolakuntzan

Debemen Elkartek ere lan handia egiten du Trinitate jaietako ganadu feria antolatzen. Elkarteko teknikariek eskerrak eman nahi dizkiete feria hori antolatzen lagundu dieten guztiei: “Batez ere bertan parte hartu duten baserritar, ganaduzale, boluntario, laguntzaile, ikusle eta antolatzaileei”. Orain dela zazpi urte hasi ziren ganadu azoka xume bat antolatzen. Helburu nagusia Elgoibarko baserrietan hazi eta ekoizten diren barazki eta animalien erakusketa zen, eta hasierako helburua erabat bete da urtetik urtera, eta oso pozik daudela adierazi dute.



Herri kirolak ere izan du lekua Trinitate jaietan. Lagun Artea taldeak Mintxetari egin zion omenaldia, eta horretarako punta-puntako hamar harri-jasotzaile etorri ziren. Plaza Handian izan zen ekitaldia, eta Iñaki Ansola Lagun Artea taldeko kidea pozik azaldu da: “Hasieran plaza jendez gainezka zegoen, baina eurria hasi zen eta jendeak alde egin zuen. Hala ere ondo irten zen dena, eta Mintxeta pozik gelditu zen; hori da garrantzitsuena”.

Nagusien danborradak protagonismo handia hartu du azken urteotan Trinitate jaietan. Batzorde antolatzaileak lan handia egiten du, eta horren emaitza begi-bistakoa da: “Balorzio oso positiboa egin dugu, eta elgoibartar guztioi eta gure herrira etorri zaretenoi, gure esker onik zintzoena adierazi nahi dizuegu; zuek baitzarete, zuen presentziarekin, gure danborrada handi bihurtzen duzuenak. Parte-hartzaileei eta antolakuntzan lagundu diguten guztiei ere, mila esker”.

Madalako Gune Askean barixaku gauean hasi ziren Trinitateak. Antolatzaileen esanetan, ez zen jende askorik hurbildu, “baina giro polita izan genuen”. Zapatuan, bestalde, jende gutxi hartu zuen parte porru patata lehiaketan, eta bazkarira ere ez zen jende gehiegi animatu: “Iluntzean eta gau partean hurbildu zen jende gehiena Madalara”, esan digute.

Domekan umeen danborrada izan zen ekitaldi garrantzitsuena. Musika eskolako arduradunak ere gustura azaldu dira: “Popeyeren karroza ekarri dugu aurten, eta oso polita izan da. Eguraldia oso ondo portatu zen, eta umeek izugarri gozatu zuten”. Dantza jaialdiaren gauean ere, balorzio positiboa egin dute: “Euriaren ondorioz, Ikastolan egin genuen jaialdia, baina jende asko etorri zen ikustera. Dantzaldi polita izan zen”.

Apirilean...

JAIO TAKOAK



Markel Arrizabalaga Loiola
Apirilak 10
Iñaki eta Judith



Izaro Luque Cordero
Apirilak 17
Diego eta Maria Victoria



Urko Migales Garcia
Apirilak 27
Valentin eta Alaine



Unax Tapia Olaizola
Apirilak 28
Iker eta Aurkene



Aitor Cerrajon Rodriguez
Apirilak 27
Aitor eta Amaia



Ekin Furnier Eiguren
Apirilak 12
Rafa eta Ainara



Lukene eta Anuska Revert Mateos
Apirilak 1
Jon eta Vanesa

Maialen Arriola Arakistain
Apirilak 23
Aitzol eta Amagoia

Elene Beristain Rivas
Apirilak 8
Jose Ignacio eta Ana Jesus

Naroa Muguruza Iriondo
Apirilak 14
Jon eta Maite

Nora Arzamendi Arozena
Apirilak 7
Asier eta Dorleta

EZKONDUTAKOAK

- Unai Egaña eta Amaia Ovejero Apirilak 15

HILDAKOAK

- Juanita San Martin Alberdi • 84 urte • Apirilak 1
- Jose Perez Hermecheo • 78 urte • Apirilak 6
- Maria Etxeberria Guenaga • 90 urte • Apirilak 8
- Jennifer Rivero Flores • 19 urte • Apirilak 9
- Lucia Martinez Lopez • 80 urte • Apirilak 12
- Txomin Badiola Salegi • 86 urte • Apirilak 12
- Pilar Zabaleta Azurmendi • 89 urte • Apirilak 26
- Jose Luis Laskurain Etxabe • 64 urte • Apirilak 26
- Jesus Suarez Oleaga • 82 urte • Apirilak 28

ETXEBERRIA

Hileta zerbitzua
OSOA eta 24 ORDUKOA

TANATORIOA



**KUTXAK
TRASLADOAK
KOROAK**

**NORBANAKOEI
eta
KONPAINIEI
zuzenduriko
zerbitzuak**

**Erietxe
zentruetan
zerbitzuak**

Santa Klara, 14 • 20870 ELGOIBAR
Tel.: (Biltegia) 943 74 13 27
(Etxekoa) 943 74 01 17- 943 74 16 56
(Sakelekoa) 635 756 295

Atal honetan zuen seme-alaba jaioberriaren argazkia jartzea nahi izanez gero, deitu BARREN astekarira
943 74 41 12 telefonora edo bidalite-postaz
barren@elgoibarkoizarra.com helbide elektronikora.

Zerk pasarazten dizu lotsa?

Kalean lehengusinarekin banao, lagun batek adarra jotzeko zera galdetzen badit: "Zure nobia da?". Nire lehagusina dela esan behar izaten diot.

Maitemindu zara sekula?

Ez, nirekin ere ez dira maitemindu, nik dakidala behintzat.

Kirolik egiten duzu?

Bai. Asko gustatzen zait pilota, txirringularitza eta saskibaloia.

Denbora libre gutxi duzu, hortaz...

Musika eskolara ere joaten naiz, eta trikiti-xa jotzen dut. Gero aitari laguntzen diot, baserrian. Ardiekin ibiltzen naiz...

Arduratsua zara?

Bai, agian nire adineko asko buruarinagoak dira. Denetik dago.

Baina parrandarik egingo zenuen, ezta?

Bai, jaietan, bereziki. Trinitateetan eta San Bartolometan lagunekin irteten naiz, baita San Lorentzo auzokoetan ere.

Baserrian bizi nahi izango zenuke?

Bai.

Eta kalean?

Ez. Nahiago dut baserria.

Zerk kezkatzen zaitu?

Ezer gutxi. Nahiko lasaia naiz.

Herrian *freaki* (persona arraroak) asko daude?

Bai, beste herrietan bezain beste.

Sail honen izena "Lotsagabea" da, baina zu ez zara...

Ez, zintzoa naiz.



Irteera



Legebiltzarra

Elgoibar Ikastolako DBH 2. mailako ikasleak Gasteizko Legebiltzarra bisitatu zuten. Legebiltzarra zer den, zein betekizun dituen eta nola funtzionatzen duen azaldu zieten hango langileek. Ajuria Enearen aurretik pasa ondoren, Mendizorroztan bazkaldu zuten.



OPORRAK HARTZEKO dESIAtZEN ZA UdE?

Javier Castro

6 urte

Bai, oporrak hartzeko gogoa dut. Gustatuko litzaidake uda honetan Port Aventura joatea.



Alaitz Kortaberria

6 urte

Bai, bada garaia. Hemen geratuko naiz gurasoekin, eta hondartzara edo igerilekura joango gara.



Yocarne Perez

7 urte

Ez, ez dut eskola bukatzeko gogorik. Gustura nago. Ez dakit zer egingo dudan oporretan



Ainhoa Rodriguez

6 urte

Ez, eskolan jarraitu nahi dut. Donostiara joango naiz nire lehengusinekin egotera.



Alaitz Urtubia

6 urte

Ez, eskolan segitu nahi dut. Ondo pasatzen dut hemen eta gainera, lagunak ditut.



Laura Rodriguez

7 urte

Ez, eskolan jarraitu nahi dut. Asko ikasi dut aurtten eta ondo pasatu dut. zintzoa naiz.



Arbelean

Agur jaia

Pilar ikastetxeko DBH4. mailako ikasleen agurra egingo da gaur, barixakua 18:30etatik aurrera. Gurasoek ondo pasatzea opa diete euren seme-alabei. Bihar, berriz, gurasoen eguna egingo dute 10:00etatik aurrera.



Mendi irteera

Joan den maiatzaren 13an, Herri Eskolako mendi taldekoak Otaño mendian egon ziren. Argazkian Otañoako gailurrean daude, Aizkorriko mendi elurtuak atzean dituztela.

Soinu Zahar eta Aurreku txapelketako finalean ere maila bikaina erakutsi dute Elgoibarko dantzariak

Txapelak lortzetik ezin gertuago gelditu ziren joan zen asteburuan

Aurreku eta soinu zaharreko azken txapelketa izan zen joan zen asteburuan. Final horretan Elgoibarko dantzariak lehen posturik lortu ez bazuten ere, txapela lortzetik oso gertu gelditu ziren.

Mutilen finala Oreretan izan zen zapa-tuan eta A sailean (7-11 urte) Oartzungo Aritz Olartek lortu zuen txapelketa. Sail horretan ez zuen Elgoibartarrik parte hartu.

B Sailean (11-15 urte) Oreretako Aitor Arrieta izan zen aurrekularirik onena. Aitor Asenjo elgoibartarra hirugarren gelditu zen. Imanol Iturrino parte hartu behar zuen beste elgoibartarra da, baina lesionatuta egoteagatik ez zuen dantzarik egin.

Neskak fin-fin

Nesken finala domekan izan zen, Legazpian. 7tik 11 urtera artekoetan txapela Oartzungo Ane Urkiak eskuratu bazuen ere, Elgoibarko Andrea Arregi izan zen bigarrena.

Nagusien sailean bigarren eta hirugarren postuak elgoibartarrek lortu zituzten: Ane Espillak eta Arantxa Ferreirok, hurrenez hurren. Txapela Pasaiaiko Idoia Besadarentzat izan zen.

Asteburuan, gainera, sariak banatu zituzten ligako irabazleen artean. A sailean Andrea Arregi izan zen ligako irabazlea eta B sailean Ane Espilla eta Maria Ferreiro.

Haritz dantza taldeko Eire Vila pozik agertu da Elgoibarko dantzariak aurten erakutsitako mailarekin. "Elgoibarko neska eta mutilek maila bikaina izan dute aurten. Mutilei dagokienez, lehen urtea



da txapelketetan parte hartzen dutela. Beraz, hori kontuan izanik, oso maila ona ematen ari direla esan daiteke", azaldu du.

Txalotzeko moduko lana

"Neskek, zer esanik ez, ligako txapelketa guztiak irabazi dituzte, hamar txapelketa guztira", dio Eirek. "Maila bikaina erakutsi dute hauek ere ligaxkako txapelketa guztietan", esan du. Finalean maila ona erakutsi badute ere, "pena izan da final egunean lehen postua ez lortzea".

"Hala ere, zorionak ematea besterik ez da geratzen, merezi baitute urte osoan zehar egin duten lanagatik", azpimarratu du.

Mutilak B sailean (11-15 urte)

- 1.- Aitor Arrieta (Orereta-Errenteria)
- 2.- Iñigo Etxebeste (Orereta-Errenteria)
- 3.- Aitor Asenjo (Elgoibar)

Neskak A sailean (7-11 urte)

- 1.- Ane Urkia (Oartzun)
- 2.- Andrea Arregi (Elgoibar)
- 3.- Tatiana Vega (Lezo)
- 4.- Nora Kortaberria (Elgoibar)
- 8.- Naia Makazaga (Elgoibar)
- 12.- Maddi Mendibil (Elgoibar)
- 15.- Miren Astigarraga (Elgoibar)

Neskak B sailean (11-15 urte)

- 1.- Idoia Besada (Pasaia)
- 2.- Ane Espilla (Elgoibar)
- 3.- Arantxa Ferreiro (Elgoibar)
- 11.- Nerea Perez (Elgoibar)
- 12.- Iraitz Gonzalez (Elgoibar)
- 13.- Nerea Badiola

ESKERTZA



2008ko apirilaren 20an hil zen *Josefa Esnaola Egaña* andreairenden sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Kantu tradizionalen ikastaroa emango die Mikel Markezek euskara ikasleei

Abeslariak maiatzaren 29an jardungo du Kultur Etxean

Mikel Markez abeslariak kantu ikastaroa eskainiko du datorren barixakuan, maiatzaren 29an, Elgoibarko Kultur Etxeko ganbaran. Ikastaroa euskara ikasten diharduten ikasleentzako antolatu dute Udalak, AEK-k eta Udal Euskaltegiak. Ikastaroa doan izango da.

Markez egun bakarrean izango bada ere, hiru saio eman beharko ditu, euskaltegietakoa ikasleen ordutegiak kontuan hartuta. Beraz, 10:00etan, 16:00etan eta 19:00etan jardungo du euskal kantu tradizionalak irakasteko ahaleginetan.

Oreretako abeslariak kantu ikastaroak ematen aspalditik dauka esperientzia. Guztira, zortzi diska kaleratu ditu. Azkenengoan, "Zure begiek, bilduma" izenekoan, Markezen hogeituroteotako ibilbide musikala laburbildu du.



Altzolako Zubibai elkarteak logotipo lehiaketa antolatu du



Altzolako Zubibai elkartearen logotipoa aukeratzeko lehiaketa antolatu dute. Edozein teknika erabili ahal izango da logotipo hori egiteko (argazkia, pintura, marrazkia, collagea...). Irudiak, gainera, "Zubibai" testua izan beharko du ondoan. Antolatzaileek azaldutakoaren arabera, edonor aurkeztu ahal izango da lehiaketara. Irabazleak ehun euro eskuratuko ditu. Goizez, Altzola Dorretxea kultur etxean aurkeztu be-

harko dira lanak, astelehenetik eguenera; bestela, arratsaldean Zubibai elkartearen lokalera eroan daitezke eguenetan, 19:00etatik 20:00etara. Lanak aurkezteko epea ekainaren 12an amaituko da.

Sari bakarra banatuko dute, eta logotipo irabazlea egiten duenari ehun euro emango dizkiote. Sari-banaketa ekitaldia Altzolako jaietan egingo dutela iragarri du Zubibai elkarteak, ekainaren 23an.

Musika bandak kontzertua eskainiko du domekan

Udal Musika Bandak bost pieza eskainiko ditu domekako kontzertuan, Herriko Antzokian, 12:30etik aurrera. Egitaraua honakoa izango da:

- 1.- *Mazzantini*, pasodoblea (Jimenez).
- 2.- *Danzas Hungaras*, 5. eta 6. (Brahms).
- 3.- *Mar y Bel*, fantasia (Ferran).
- 4.- *Independence Day*, preludeo sinfonikoa (Arnold).
- 5.- *Caribbean Concerto*, suitea (Kees Vlak).

Ikasketa gela irekiko du Kultura Sailak

Maiatzaren 24tik uztailaren 3ra, biak barne, Kultur Etxeko sotoan ikasketa gela zabalduko du Udaleko Kultura Sailak. Ikasketa gela egunero irekiko dute, 9:00etatik 21:00ak arte.

Eskuzek zaharberitutako altzariak erakutsiko ditu

Eskuz elkarteak gaur irekiko du (maiatzak 23) zaharberitutako altzarien erakusketa. Kultur Etxeko erakusketa gelan ikusi ahal izango dira altzariok, 19:00etatik 21:00etara astelehenetik zapatara. Domeketan berriz 12:00etatik 14:00etara egongo da erakusketa zabalik. Ekainaren 1ean amaituko da.

Glotodidaktika ikastaroa antolatu du AEK-k

Euskara irakasle izan nahi dutenentzat glotodidaktika ikastaroa antolatu du AEK euskaltegiak. Bertan, euskara ikasteko oinarriko prestakuntza eskainiko dute, ekainaren 30etik uztailaren 24ra, Donostiako Antiguako euskaltegian. Ikastaroan aprobetxamendu ona izanez gero, eta homologaziorako baldintzak betez gero, AEKren lan politsoan izateko aukera dago. Informazio gehiago telefono honetan: 943 32 71 72.

PEDRO MARI EGAÑA “Mintxeta”

Harri-jasotzaile ohia

Pedro Mari Egaña “Mintxeta” harri-jasotzaile ohiari omenaldia egin zioten Trinitate jaietan. “Aurrekoa Mendaron egin zidaten azaroan, eta hau azkena izatea espero dut”, argitu du. Jubilatuta badago ere, Elgoibarko 20 urteko gazte bat entrenatzen du. Bera ere adin horretan hasi zen, eta 20 urte geroago laga zuen, bizkarreko arazorik gabe.



“Mundu guztiak ez du merezitako omenaldirik jasotzen”

Zure azken omenaldia izango dela diozu. Zergatik?

Mundu guztiak ez du merezitako omeldaldirik jasotzen. Harri-jasotzailea izandakoa naiz, eta orain gazteekin jarraitzen dut.

Ezustekoa izan zen omenaldia?

Irratian entzun nuen, hamar egun lehenago, omenaldia egin behar zidatela. Anaiak ere esan zidan omenaldia egitekoak zirela.

Egun polita izan zen?

Bai, erakustaldiarekin gustura geratu nintzen.

Gaur egun harri-jasotzaile bakarra entrenatzen duzu. Zergatik bakarra?

Asko hasi egiten dira, baina kosta egiten da jarraitzea. Bakarrarekin gustura nabil. Inguruko gazte bat etorriko balitz, ez nioke ezetz esango.

Berak eskatu zizun entrenatzeko?

Bai, gure ilobaren koadrilakoa da. Ederra mutila! Ehun kilo izango ditu, eta hogeitun urte. Etxeberriko Imanol da.

Zure iloba Arkaitzek laga egin zuen?

Bai, Mendaron ibili zen nire omenaldian azkeneko aldiriz, eta orain trontzan ibiltzen da. Ezin izan zuen pisu gehiago hartu, eta harri-ja-

soketan pisu pixka bat hartzea komeni da. Trontzan lagun batekin dabil: txapelketan ere apuntatu ziren...

Zergatik uste duzue gazte askok lagatzen dutela?

Sufritu egin behar da. Entrenamenduetan aurrera egin behar da: hobera joan, altxatzen segi. Gaur egun gazte mordo dago.

Lehen baino nekezagoa da harria jasotzea?

Orain, masajearrekin edo medikuekin, errazago prestatzen da. Ez da jendeak uste duen bezala. Nire sasoiaren ez nuen masajerik jaso. Hemen nago 60 urte eginda.

Bizkarreko arazorik baduzu?

Ez, belaunean izaten dut mina. Harriak jasotzen ibili ez banintzen ere izango nuen. Gure anaia ez zen harriak jasotzen ibili, baina 37 urte zituela operatu zuten ernia diskotik. Baserriko zaharrak oker-oker etortzen ziren basotik, bustita. Gero ez ziren sekatzeten, eta gero okerrera egiten zuten. Harri-jasotzaile mordo ezagutzen dut, eta asko ondo daude.

Neska harri-jasotzaileak ere badaude. Zer iruditzen zaizu?

Ondo, segimena izan ezkerro. Neska gutxi daude, bi. Nire garaian ez zeuden. Gaur egun kirol gehienetan daude neskek.

Mugerza krosari sari berezia eman dio Kirol Kontseilu Gorenak

Antolakuntzak 65 urtean eginiko lana nabarmendu du



Espainiako Kirol Kontseilu Gorenak Zilarrezko Plaka izeneko saria eman dio Elgoibarko Nazioarteko Juan Mugerza Krosari. Modu horretan, Krosak Kirol Merezimenduen Errege Ordenean sartzea lortu du. Sari hori, “65 urtetan zehar egindako lanarengatik” eman zaio Mugerza Memorialari, baita, ekitaldi horren antolatzaileek, “soin-kultura zabaltzeko eta bultzatzeko nahiz kirola sustatzeko egin duten ahaleginagatik”.

Krosaren antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkie pertsona, babesle, enpresa, federazio, atletismoko klub, hedabide eta laguntzaile guztiei: “Era berean eskerrak eman nahi dizkiogu ekitaldi honen protagonista nagusi den Elgoibarko herriari. Zuei esker, urte askotan, kirol ekitaldi hau bere espezialitateko eredu izan baita”.

Saria datorren maiatzaren 27an emango dute, Madrilén, Jarduera Fisikorako Zientzien Fakultatean.



IMHko neskek maila ona erakutsi zuten, galdu arren

IMH Elgoibar eskubaloia taldeak ezin izan zuen Espainiako Eskubaloia Txapelketaren kadete mailako azken faserako sailkatu. Hiru partida jokatu zituzten gainezka zegoen Olaizaga kiroldegian, eta hirurak gutxigatik galdu zituzten (CB Camargo 27 – IMH Elgoibar 24; IMH Elgoibar 24 – Itxako 29; IMH Elgoibar 30 – La Garriga 26). Kantabriako Camargok lortu zuen sailkapena.

EMAITZAK

FUTBOLA

Haundi 1 – Amurrio 3
Elgoibar 3 – Burumendi 1 (jubenilak)
Eibar 4 – Elgoibar 0 (kadeteak)

ESKUBALOA

Camargo 27 – IMH Elgoibar 24
IMH Elgoibar 24 – Itxako 29
IMH Elgoibar 26 – La Garriga 30
Zarautz 17 – Elgoibar 19 (Gipuzkoako txapelketa)
Arrate 44 – Tecnomeca 29 (kadete mailak)
Leizaran 40 – Cometel 30 (jubenil neskek)

ARETO FUTBOLA

Kanikas 5 – Kenci 5 (euska liga)

GIPUZKOAKO HIRU TXIRLO TXAPELKETA

1. Angel Ibarluzea 24
2. Ganix Rodriguez 22
3. Jose Muñoz 21

AGENDA

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Barixakua, 23

19:00 Cometel – Zarautz (jubenil neskek)

Zapatua, 24

11:15 Bankoa Elgoibar–Lagunak

ESKU PILOTA

Barixakua, 23

22:00 Hernani – Elgoibar (Herri artekoa)

Pilotan herri arteko final laurdeneterako sailkatu da Elgoibar

Azken partidari eta azken tangoan erabaki zen Andoianek eta Elgoibarrek elkarren aurka jokatu zuten herri arteko pilota txapelketako kanporaketa. Elgoibarrek 4 eta 2 irabazi zion Andoaini, eta final laurdenetan Hernani izango du aurkari.

LANA

ESKAERA

- Mutila, edozertan lan egiteko prest. ☎ **666 215 426**
- Neska, zerbitzari, sukaldean laguntzaile edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **618 377 283**
- Neska gaztea, nagusiak zaintzeko prest. ☎ **616 230 814**
- Neska, arratsaldean nagusiei paseoa ateratzeko edo zaintzeko eta erizain laguntzaile lan egiteko prest. ☎ **675 711 658**
- Neska, lan egiteko prest. ☎ **650 611 415**
- Emakumea, interna lan egiteko prest. ☎ **639 240 038**
- Neska, garbiketa lanetarako edo nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **626 914 904**
- Neska, garbiketa lanetarako, sukaldean aritzeko edo nagusiak edo umeak zaintzeko prest. ☎ **669 064 252**

Soldatzailea

- Espaniako titulua duen soldatzailea, peoi lanak egiteko prest. ☎ **661 225 149**

- Neska, garbiketa lanetarako, sukaldean aritzeko edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **648 192 683**
- Mutila, sukaldean laguntzaile, zerbitzari (esperientzia), edo arotz lanak egiteko prest. ☎ **686 545 884**
- Neska, umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketa lanetarako prest. ☎ **678 939 382**
- Neska, umeak edo nagusiak zaintzeko prest asteburuetan edo gauetan. ☎ **663 338 456**
- Neska, egun erdiz, arratsaldeko gauz umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ **686 234 612**
- Neska, nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **671 476 869**
- Neska, astebukaeretan edo arratsaldeetan nagusiak edo umeak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **646 821 678**
- Neska, lan egiteko prest. Gidari baimena badut. ☎ **669 154 143**
- Neska, garbiketa lanak egiteko edo umeak zaintzeko prest. ☎ **652 446 228**

ESKANTZA

- Rezola gasolindegian lan egiteko lan-garun bat behar da. ☎ **943 74 02 41**

- Zerbitzaria behar da Elgoibarko taberna batean lan egiteko. ☎ **652 778 260 / 652 778 210**
- Zerbitzaria behar da astebukaeretan lan egiteko. Ordutegi malgua. ☎ **943 74 2724**
- Zerbitzaria behar da. Kontratua. ☎ **699 453 015**
- Eskarmentua duen neska behar da umeak zaintzeko. ☎ **664 126 273**
- Asteburuetak zerbitzariak behar dira. Deitu astelehenetik ostiralera goizez. ☎ **615 761 463**
- Katalogoak saltzeko lagunak behar dira, kometikoak eta barruko arropa eta bitxiak saltzeko. ☎ **607 824 892**
- Zerbitzaria behar da astebukaeretan. ☎ **943 12 73 34**

ETXEBIZITZAK

SALMENTA

- Etxea salgai. Erdigunean. Hiru logela, egongela eta sukaldea, bainua eta kamarotea. Kanpoaldera begira eta eguzkitua. Altzariekin eta igogailuarekin. ☎ **666 650 626**
- Etxea salgai Erretxindin. Lau logela, sukalde berriua, eguzkitua. Ganbara eta balkoi handia. Altzariekin salgai. ☎ **628 115 677**

GARAJEAK

- Bi garaje alokairuan. Plaza Handitik gertu, Jausoro Plazan. Biak itxiak eta ederrak (16 eta 19m²). Bata 75 euro eta bestea 85 euro, hilean. ☎ **615 787 748**
- Marradun garajea alokairuan, Juan Mugerza kalean (pista beltza). 38 euro hilabeteko. Autoa, Quad eta motorrentzako. ☎ **616 111 603**
- Garaje itxia salgai pista beltzean. ☎ **943 74 23 06**

MOTORRA

- Opel Astra Coupe gasolina salgai. 95.000 km. Egoera onean. Beti garaje-ean. 7.500 euro (negoziatzeko). ☎ **665 727 979**
- Citroen Saxo diesela salgai. Egoera onean, beti garaje-ean. 97.000 km. ☎ **665 720 681**
- Citroen Xantia 1.9 TD 92CV salgai. 65.000 km. bakarrik. 4.000 euro. ☎ **664 203 406**

- Renault Traffic ekipatua salgai. Bidaia-tzeko bost plaza (lau, lo egiteko), sukaldea guztiz ekipatua. Berogailu estatikoa eta bira ematen duen janlekua, dutxa, toldoa eta bizikletak eramateko lekua. 76.000 kilometro. 2003koa. ☎ **658 710 899 / 685 725 840**
- Initiale modeloko Renault Laguna autoa salgai. Gama altua. 2003. urtekoa. Egoera ezin hobea. Beti garaje-ean. 88.000 km. 16.000 euro negoziagarri. ☎ **690 226 581**

BESTELAKOAK

- Pisua alokairuan Gasteizen. Ikasleentzako. Hiru logela eta egongela. ☎ **670 351 672**
- Logela independentea alokairuan, giltzarekin. Deban, pisu propioa. Berria. ☎ **605 585 057**
- Alokairuzko etxe baten bila nabil. Denbora luzerako, eta egoera onean, Elgoibar edo Mendaron. ☎ **639 628 763**
- Hendaian apartamentu berriua alokatzen da. Familia batentzat egokia. Bi logela bikoitz ditu, komuna, sukaldea, egongela, terraza, igerileku eta parking pribatua. Hondartzatik gertu. ☎ **670 410 858**
- Pisua alokatzen da. Logela bat. Altzariekin eta berria. Kanpoaldera ematen du. ☎ **636 631 632**
- Ahuntzak salgai prezio onean. ☎ **699 300 325**
- Neska behar da logela alokatzeko. Debatik gertu. ☎ **664 126 273**
- Neska behar da pisua konpartitzeko Mendaron. ☎ **636 690 861**
- Neska behar da logela eta bainua alokatzeko Elgoibarren. ☎ **699 486 458**
- Gutxienez hiru logela dituen pisu baten bila nabil. ☎ **639 882 004**
- Gortinak, ohe arropak, alfonbra txiki edo handi, altzari eta etxerako tresnak behar dira. ☎ **676 444 171**

ABISUAK

- Perikito berdeak ihes egin du kaiolatik. Urasandin, Herri Eskola inguruan. Sarituko da. ☎ **616 790 345**



BEKAK

BRITANIA HANDIA

La Caixa Fundazioa. Lizentziatu eta goi-mailako tituludunentzako hogeitau beka, Britainia Handiko unibertsitate eta goi-mailako irakaskuntza-zentroetan graduondoko ikasketak egiteko. Epea: ekainak 13.

ESTATU BATUAK

Fundación La Caixa. 2009-2010 ikasturtean Ameriketako Estatu Batuetako edozein unibertsitateko graduondoko ikasketak egiteko 50 beka, lizentziatuei eta goi-mailako tituludunentzako. Epea: Maiatzak 30.

LANA

BEGIRALEAK

GAZTE Informazioa. Udako ekintzetarako begiraleak. Gipuzkoako informazioa: www.gipuzkoagazteria.net/uda

INFORMATIKA

Eusko Ikaskuntza. Informatika eta Teknologia arduradun lanpostua betetzeko pertsona bat behar dute. Epea: maiatzak 30.

ELGOIBARKO GAZTE INFORMAZIO GUNEA

Kultur Etxean. Bigarren solairuan. e-posta: gjb@elgoibar.org ☎ **943 74 14 61**

Astelehen, asteazken eta ostiral goizetan:
11:00etatik 13:00etara
Asteleheneetik ostiral arratsaldetan:
16:00etatik 19:00etara.

OHARRA:

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak hiru astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta **12 euro** eta alokairua **8 euro**. Autoak **8 euro**. Eta bestelakoak **5 euro**. Eguazten eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

MODULOAK

Lana / Bestelakoak

Astebete : 5 euro

2 aste : 8 euro

3 aste : 10 euro

Etxebizitzak/ Garajeak/ Motorra

Astebete :10 euro

2 aste : 17 euro

3 aste : 25 euro



• Zorionak, **Maialen**, sei urte egin dituzulako. Mila muxu gure printzesarenzat.



• Zorionak, **Nahia**, etzi lau urte egingo dituzulako. Muxu handi bat Mararen partez.



• Aupa, **printzesa**, hil honetan jaunartzea egin duzu-eta. Zorionak, gaur 9 urte egingo dituzulako.



• Zorionak, **Tamara**, 12 urte dagoeneko. Aida, guraso eta aitona-amonen partez.



• Zorionak, **Melani**, gaur 16 urte egingo dituzulako. Familiaren partez muxu asko.



• Zorionak, **Nahia**, etzi bi urtetxo egingo dituzulako. Muxu asko familiaren eta bereziki Iratiren partez.



• Zorionak, **Haizea**, atzo 9 urte egin zenituelako. Familiako eta bereziki Markelen partez.



• Zorionak, **Leire**, zure lehen urtebetetzeari. Familia guztiaren partez.



• Zorionak, **Pakita**, gaur zure eguna delako. Lagunen partez.



• Zorionak, **Ander**, atzo zortzi urte egin zenituelako. Familiaren eta bereziki Adrianen partez.



• Zorionak, **Julen**, zure lau urtetxoengatik. Familiaren eta bereziki Irigoren partez muxu handi bat.



• Zorion bero-bero bat **Berfiat!** Bi muxu handi ikastolako laguntxo guztien partetik.



• Zorionak, **Anartz**, datorren martitzean urtetxo egingo duzulako. Familiaren partez.



• Zorionak, **1+1=11**, oso ondo pasatu gaurko meriendan. Zorionak familiaren partez.




• Zorionak, **Irabe**, egun ona pasa ezazu. Muxu potolo bat familiaren eta Judithen partez.



• Zorionak, **Enara**, maiatzaren 21ean 14 urte egin zenituelako. Familiaren partez muxu handi bat.



• Zorionak, **txapeldun**, zure hamargarren urtebetetzeari. Etxeko guztien partez.



• Zorionak, **Oler**, zortzi kandelak batera emendatuko al dituzu? Pa handi bat etxeko denon partez!



• Zorionak, **Elsa**, gaur zure eguna delako. Hartu muxu handi bat txokolatzetara. Etxeko partez.




• Zorionak, **Ane**, bederzti urte egingo dituzu-eta. Aurten jaunartzea ere egin duzu...



• Zorionak, **Gorka**, etxeko partez eta ondo pasa bihar zure zazpigarren urtebetetzeari.



• Zorionak, **Iria eta aitona**, ondo pasa zuen egunean. Familia guztiaren partez.



• Zorionak, **bikote**, ondo pasatu zenuten zuen egunean, ezta? Muxu handi bat zuen familien partez.



• Zorionak, **bikote**, maiatzaren 10ean zuen urrezko eztaietan oso ondo pasa guelak.



• Zorionak, **Judith, Adrian eta Noemi**, familiaren partez.



• Zorionak, **kuadrila**, maiatzean bi urte egin dituzuen guztioi ikastolako laguntxo guztien partetik.

• Zorionak, **Alicia**, egun eder bat pasa dezazula. Iratxeren partez muxu handi bat.

OKINDEGIA

25 domeka **DOÑA MERCEDES**

FARMAZIAK

24 ORDUZ

- 23 Zabaleta
- 24 Etxeberria (Errosario)
- 25 Etxeberria (Errosario)
- 26 Ibañez
- 27 Garitaonandia
- 28 Etxeberria (Santa Ana)
- 29 Fernandez
- 30 Yudego

Ibañez

Rekalde, 1 (SORALUZE)
Tel: 943 75 16 38

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagarza (MENDARO)
Tel: 943 75 61 42

Zabaleta

Kalebaren, 9 (SORALUZE)
Tel: 943 75 13 84

**INFORMAZIO
GEHIAGO:**



Egin klik

www.elgoiBARREN.neten

musika

25 domeka

12:30 Musika Bandaren

kontzertua

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du. Herriko Antzokian.

27 martitzena

19:30 Musika Eskolako

ikasleen kontzertua

Kurtso amaierako kontzertua, Musika Eskolako auditorioan.

29 eguena

19:30 Musika Eskolako

ikasleen kontzertua

Kurtso amaierako kontzertua, Musika Eskolako auditorioan.

30 barixakua

19:30 Musika Eskolako

ikasleen kontzertua

Kurtso amaierako kontzertua, Herriko Antzokian.

kirola

24 zapatua

11:00 Xake lehiaketa

Umeentzako saioa goizean, eta arratsaldeko 16:30ean taldeentzat. Giza Eskubideen parkean.

25 domeka

6:00 Elgoibarko itzulia

Morkaikok antolatuta, Elgoibarko mendi itzulia izango da. Irteera Plaza Handian.

11:00 Arkuarekin tiraketa

Zartak antolatuta, hurrek arku tiraketa praktikatzeko aukera izango dute. Plaza Handian.

jaialdiak

23 barixakua

18:30 Ikastolako jaialdia

Haur Hezkuntzako ikasleen jai. Ikastolako frontoian.

18:30 Ikasleen agurra

Pilar Ikastetxeko DBH4ko ikasleen agurra. Pilar Ikastetxean.

24 zapatua

10:00 Gurasoen Eguna

Pilar Ikastetxeko ikasleen gurasoen eguna izango da. Pilar Ikastetxean.

GAZTELEKUKO EKINTZAK

- BARIXAKUA 23**
Aerobic 17:30
- ZAPATUA 24**
Twister 17:00
- DOMEKA 25**
Gazte zinema 17:30
- MARTITZENA 27**
Inklusio jolasak 18:30
- EGUAZTENA 28**
Eskulanak 17:00
- EGUENA 29**
Inklusio jolasak 18:30

LUDETEKAKO EKINTZAK

- BARIXAKUA 23**
Ikastolako jaialdia ikustera 18:00
- ASTELEHENA 26**
Pelikula 16:30
- MARTITZENA 27**
Antzerki tailerra 17:00
- EGUAZTENA 28**
Talde jolasak 16:30
- EGUENA 29**
Zeramika tailerra 17:30



«La noche es nuestra»

- 23, barixakua: 22:15
- 24, zapatua: 19:00/22:15
- 25, domeka: 19:00
- 26, astelehena: 21:30

“Zuzendaria: James Gray.

Aktoreak: Joaquin Phoenix, Mark Wahlberg, Robert Duvall, Eva Mendes.

Iraupena: 117 min.

**13 urtetik gorakoentzat
Herriko Antzokian**

New York, 1988. Hilketan uholde baxi baten ondoren droga berri bat zabaldu da hirian. Gerra hasi da, eta gangster berriek dituzten armen ondorioz, hilerok bi polizia hiltzen dira eta errurik ez dutenak ere mehatxatuta daude.

erakusketak

23 barixakua

19:00 Altzari erakusketa

Eskuz arte tailerrean zaharberritutako altzarien erakusketa inauguratuko da. Kultur Etxean.

besteak

23 barixakua

17:30 Kiribilka programa

Bitik sei urtera bitarteko haurrentzako. Plaza Handian.

24 zapatua

12:00 Ekitaldi politikoa

Herri Batasunaren 30. urteurreneko ekintzak amaitzeko, ekitaldia egingo dute Plaza Handian. Ondoren, herri bazkaria.

29 eguena

Kantu ikastaroa

10:00, 16:00 eta 19:00

Euskal kantu tradizionalen ikastaroa, Mikel Markezekin. Kultur Etxeko Ganbaran.

Zerikasi

IKASTAROAK

Helduentzako igeriketa ikastaroa

Norentzat: interesa duten guztientzat
Hizkuntza: euskaraz eta gazteleraz
Iraupena: ekainaren 30etik uztailaren 24ra
Non: Eibarren
Izenemate bukaera: Plazak bete arte

Sukaldaritza ikastaroa: lehen pausoak

Norentzat: 16 urtetik gorakoentzat
Hizkuntza: euskaraz eta gazteleraz
Iraupena: 16 orduko ikastaroa, maiatzaren 26an hasita
Non: Eibarren
Prezioa: 37 euro

Sorospidetza eta desfribiladore automatikoa

Norentzat: Sorosle titulua dutenentzat
Hizkuntza: euskaraz
Iraupena: 12 ordu, maiatzaren 31n hasita
Non: Elgoibarren
Prezioa: 40 euro

Pintura: Autoen konponketa

Norentzat: Langile eta langabetuentzat
Hizkuntza: gazteleraz
Iraupena: 50 ordu, ekainaren 2an hasita
Non: Elgoibarren
Izenemate bukaera: ekainak 1

Dantza latinoak

Norentzat: interesa duten guztientzat
Hizkuntza: euskaraz eta gazteleraz
Iraupena: Ekainetik aurrera
Non: Mendaron
Prezioa: 20 euro hilean

Informazio eta eskaintza zabalagoa:
www.zerikasi.com edo 943 74 82 71

Gure gomendioa

Altzari erakusketa

Gaur, barixakua, 19:00etan

Eskuz arte tailerreko ikasleek zaharberritutako altzariak jarriko dituzte ikusgai Kultur Etxean. Asteleheneetik zapatara arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara egongo da zabalik erakusketa gela, eta igande eta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara.



klinika kortazar

Oftalmologia pediatrikoa

Gidabaimenak eta armabaimenak

Errebal, 14 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Te. 943 700 700 / 943 203 835



ECANIZADOS
S.COOP
BUKATU.

OLASO Poligono Industrial - Olasope kale, 6
66 area - Telefonoa: 943 74 42 54 - Fax: 943 74 02 98
20870 ELGOIBAR
E-posta: bukatu@bukatu.es - Htt: www.bukatu.es



klik - klak

oihana castro

Ikasleok ondo bizi zarete?

Alde batetik bai, jai asko ditugulako; baina bestetik, ez. Nahiago nuke lanean egotea, astelehenetik ostiralera bakarrik.

Irakaslea izatea gogorra da?

Bajoiak izan ditzakezu, eta ikasleren bat egon liteke adarra jotzen. Jai egun mordoa dute eta, eskolak eman eta azterketak zuzentzea besterik ez dute egin behar.

Bilerak, eskolak prestatzea... ahaztu zaizkizu.

Bilerak? Ez dituzte asko izango, eta eskolak emateko pixka bat liburua begiratzearekin nahikoa da. Nahiago nuke irakaslea izatea.

Ingelesekoa?

Ez, kosta egiten zait ingelesez hitz egitea. Ez daukat erraztasunik. Horregatik joango naiz hila-bete Kanadara, baina horretarako guztia aprobatu beharra daukat.

Baina gurasoek bidaia ordainduta dute?

Bidaiaren zati bat bakarrik.

Zenbat irakasgai dituzu errekupeartzeko?

Hiru: euskara, ekonomia eta gaztelania.

Nora joango zara zehazki?

Torontora. Gero txangoak egingo ditugu Niagarako katarretara.

Marilyn Monroeren moduan. *Niagara* pelikula ikusi duzu?

Ez dut pelikula ikusi.

Zure lagunak hemen geratuko dira?

Nire lagunak Maltara joango dira ingelesa ikastera, eta bitartean parranda egitera.

Debakoa zara. Zuk non egiten dituzu parrandak?

Lagunak Elgoibarren, Deban eta Eibarren ditut. Parrandetan jende asko ezagutzen da. Uda partean inguruetak festetara joaten gara. Elgoibar 17 urte inguruko gazteentzako hobeto da. Deban 21 urtetik gorakoak ibiltzen dira. Pasa den astebukaeran, Debarren Eguna izan zen. Elgoibarren ikasten dut DBHko 2. mailatik.

Bihar Eurovision ikusiko duzu?

Ez. Penagarria da Chiquilicuatre joatea. Gainera postu ona lortuko du.

Inkosten arabera ez...

Duela pare bat urte *freaki* bat joan zen, eta nire ahizpa txikiak bozka eman zion pentsatuz inor gehiagok ez ziola bozkatuko. Azkenean hirugarren geratu zen.

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49-1 Tel: 943 74 11 89



Mandiola Egurrak S.L.

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA

BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza, 3 ☎ 943 74 12 56 - (mobila) 609 53 23 83

Elgoibar

Residencial Géminis

Hobeto bizi!



Etxebizitza
berri eta eksklusiboak
garaje eta trastelekuekin
266.000 eurotik.



2008an emango dira!



Informazioa eta salmenta:
Trenbide Kalea 21, bajo • 20870 Elgoibar

943 74 80 92
www.grupogsi.com



Gsi

(Ongizate eremuak)

DBH amaitu ondoren

Heziketa Zikloak Erdi-Maila



2 urtez

- Mekanizazioa
- Makineria eta linea eroanbideen instalazioa eta mantenimendu elektromekanikoa

Batxilergoa ikasi ondoren

Heziketa Zikloak Goi-Maila



2 urtez + 3 urtez = eman 5ekoa!

- Proiektu mekanikoen garapena
- Mekanizazio bidezko produkzioa(*)
- Industri ekipoen mantenimendua(*)

BERRIA:

(*) IKASI eta LAN 3 urtez irakaskunta eleanitza

Goi-Mailako Zikloen ondoren

IMH Ingeniaritza Eskola



- 3 urtetako lan esperientzia
- Txandakako metodologia
- Ikasketak ordaindu lanean irabazitakoarekin
- Boloniako Itunean indarrean dagoen titulu europar ofiziala

Titulua: Ingeniaria



Ate irekiak:

Maiatzak 31, larunbata – goizeko 11:00etan

